

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBAO-BIZKAIA UREN PARTZUERGOAREN 2008-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoaren 2008ko ekitaldiko fiskalizazio txostena gauzatu du, Partzuergoaren beraren kontuak eta taldeko sozietateen kontuak barne hartu dituena, Udal Sareak, SA eta Bilboko Urak, SArenek, hain zuzen ere. Txostena Osoko kideen gehiengoak onetsi du.

Fiskalizazio txostenak legezotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezotasunaren atalean Epaitegiak uste du Partzuergoak zuzentasunez bete duela ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, txostenean bertan zehaztu diren hainbat akats salbuetsita.

Honela, bada, langileen atalean azpimarratu da idazkaritza eta diruzaintza lanak lan-kontratuko langileek betetzen dituztela eta horrek Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak xedatutakoa urratzen du, egiteko horiek funtzionarioentzat gordeak baitaude. Berebat esaten da lanaren % 15eko erretiro partziala zuten 26 langilek ez dutela aipatutako lansaiola gauzatu, kontratua amaitu arte aparteko ordaindutako lizentzia eman zaielako eta horrek indarreko legedia urratzen du.

Partzuergoaren Urteko Kontuei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia jaulki du, bi ez-betetzeei dagokienez izan ezik: bata, isurketa kontrolaren likidazio kanonari dagozkion 1.172 mila euro ekitaldi itxieran ez erregistratu izanari dagozkionak eta abenduko kobrantzei dagozkien 14.772 mila euro, Partzuergoaren banku kontuetan gordailatutakoak.

Taldeko sozietateek legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzia aldekoa da salbuespen hauekin: Udal Sareak, SLren kasuan ez dira publizitate eta lehia printzipioak gorde hainbat kontraturen lizitazioan; eta matxuren ustiaketa, mantentze eta

kudeaketako bi kontratutan, exekuzioak ekitaldirako esleipen zenbateko gehiengoa gainditu du % 82an eta % 233an, APKLTBren lehia printzipioak urratzen dituen.

Taldeko sozietateen urteko kontuei dagokienez, HKEEren iritzia aldekoa da.

Berebat, HKEEk hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruz. Honi dagokionez adierazi behar da prozeduretan ere hobekuntza egon dela, Epaitegiak aurreko ekitaldiarekiko azaleratu ziren ez-betetze eta akatsak nabarmen murriztea ekarri dutenak.

Amaitzeko, finantza egoerari dagokionez, HKEEk ondorioztatu du aurrezki garbien eta egindako aurreikuspenen bilakaera historikoa aintzat hartuta, inbertsioen programa denboran luzatu behar dela, edo bestela, baliabide eta beharizanen arteko desoreka sortuko dela, kanpoko finantzaketara jotzera behartuko duena, bai diru-laguntza berriak erakarriz, bai zorpetze-baliabidearen bitartez.